

Aurkezpena



Sekuentzia honetan ariketa hauek dituzu:

- Bideo bat ikusi eta galderei erantzun.
- Testu bat irakurri eta hutsuneak bete hitz egokiena aukeratuta.
- Hiru audio entzun eta nork zer esan duen asmatu.
- Taldean jarri eta zure esperientzia besteekin partekatu

Egia ala gezurra?



Hemen daukazu Lander Iztueta bidaiariari egindako elkarrizketaren bideoa. Ikusi eta erantzun behean esaten direnak egia ala gezurra diren.

Bidaia aukeratzeko, nola joango garen erabaki behar da aurretik.

- Egia Gezurra

Garraibideak helburua baldintzatzen du.

- Egia Gezurra

Baldintza bat baino gehiago juntatu behar dira bidaia egin ahal izateko.

- Egia Gezurra

Hegazkinaren abantaila da altxatu eta mugitu zaitezkeela bertan.

- Egia Gezurra

Hegazkinak bidaiatzen ari zaren sentrazioa handitu egiten dizu.

- Egia Gezurra

Treanean herrialde horretako jendearekin kontaktu handiagoa daukazu.

- Egia Gezurra

Balkanetan Bukarestera zihoan tren bat hartu zuten.

- Egia Gezurra

Treko taberna itxi egin zuten gauez.

- Egia Gezurra

Konturatu ez baziren ere, ez zegoen trenak alde egiteko arriskurik.

- Egia Gezurra

Bideoa euskarazeko kodea



Egokiena aukeratu

Munduan barrena trenez edo hegazkinez bidaiatu? izeneko artikulua irakurri eta bete hutsuneak aukerarik egokiena erabilia.

Bidaiatzea guztiz osasungarria da buruarentzat. Independentiago eta arduratsuago izaten laguntzen du, eta munduari ikuspegi berri batetik 1 . Bidaiak era askotako herrialdeak ezagutzeko 2 ematen dute. Horrekin batera, bertako kulturaren, gastronomiaren, kirolen eta ohituren berri ere izan dezakegu. Hainbat ardatz hartzen dira kontuan bidaia baten plangintza egiterakoan: batetik, bidaiarekin zer lortu nahi dugun (esperientzia, bizipena, abentura, atsedena...); bestetik, zein aurrekontu daukagun egun horietarako; eta, azkenik, bertan zenbat denbora 3 garen.

Hiru ezaugarri horiek finkatuta, garraiobidea aukeratuko dugu. Motoz, autoz, trenez, hegazkinez, autobusez... 4 zabala dago. Lagun batek Thailandiara doala esaten badigu, hegazkinez egiteko asmoa duela pentsa dezakegu. Beste lagun batek, 5 , Europara doala kontatzen badigu, trenean ere joan daitekeela irudika dezakegu.

Lander Iztueta bidaiari handia da eta Perun, Ekuadorren, Grezian, Turkian eta Tanzanian ibilia da, 6 , eta trena, autobusa, hegazkina eta itsasontzia erabili ditu alde batetik bestera mugitzeko. Andoaindarra munduko bazter askotara iritsi da dagoeneko, baina nola hautatu du zein garraiobide erabili? Horrelako kontuen inguruan 7 gara berarekin.

Landerrek esan digu oso garrantzitsua dela bidaia batetik zer lortu nahi dugun 8 . Izan ere, lehen erabakia hori izaten da berarentzat. Aurrekontua eta denbora ere kontuan hartu behar diren beste bi ezaugarri direla aitortu digu: “Askotan, denbora daukagunean, ez daukagu 9 dirurik edo, dirua dugunean, ez daukagu denborarik. Orduan, gure bidaia arrazoi horiek kontuan hartuta osatu behar da beti”.

Abentura bat bizitzea, erlaxatzea, landa-ingurua ezagutzea, kirola egitea, hirian murgiltzea, kultura zein den jakitea... Horiek eta beste hainbat izan daitezke herrialde batera eramango gaituzten arrazoiak. Landerri herrialde horretako gizartearen 10 sentitzea gustatzen zaio: “Bidaiatu baino gehiago, atzerrian bizi izan naizela esan daiteke”, aipatu digu.

Familiarekin, lagunekin, bikotekidearekin edo bakarrik bidaiatzen du jendeak. Landerrek, bere kasuan, bidaia-motaren arabera aukeratzen du nola eta norekin joan. “Helburua naturan murgiltzea denean, nahiago dut bakarrik bidaiatu, nik 11 erabakitzeko zenbat denbora eskaini leku bakoitzari. Helburua hiri bat ezagutzea denean, hobe taldean bidaiatzea; museoetara, tabernetara... joateko”, adierazi digu.

Trenaren eta hegazkinaren alde onak eta txarrak

Landerrek, batez ere, trena eta hegazkina erabili ditu bere bidaietan: “Normalean urrutiko herrialdeak aukeratzen ditut bidaiatzeko; 12 , hegazkinez joaten naiz eta han, alde batetik bestera ibiltzeko, trena edo autobusa erabiltzen ditut”.

“Denbora eta distantzia mugarri ditugunean, hegazkina denbora-makina bat bezalakoa da, leku batean sartu eta beste batean ateratzen gara”, azaldu digu bidaiari andoaindarrak. Hegazkina erabilgarria dela dio, baina, 13 , ez dugu bidaiaz gozatzen eta distantziaren sentsazioa ere ez dugu izaten.

Treanean, 14 , beste era batean bidaiatzen da. Erosoa da eta bertan alde batetik bestera mugitzeaz gain, 15 goza dezakegu: “Gainera, trenean herrialde horretako jendea joaten da eta horrek bertako kulturara gerturatzen ere laguntzen digu”. Hala ere, berarentzat alde ona den hori, beste askorentzat txarra izan daitekeela iruditzen zaio, “bidaiari askoren kasuan, denbora altxor preziatua denez, nahiago dute ahal den azkarren iritsi; eta, horretarako, hegazkinean bidaiatzea azkarragoa da”.

Hurrengo bidaia, _16_____ , Tanzaniara egingo du, eta bertara hegazkinez joango da. Han lagun batekin elkartu eta herrialdearen mutur batetik bestera mugitzeko asmoa du. Hegazkinean ordubeteko bidaia da, baina beraiek hogeitaz ordu igaroko dituzte ibilbide hori egiten: “Bidaia horretatik zer atera nahi dugun _17_____ hartu eta trenean egitea erabaki dugu”.

XIX. mendean hasieran, industrializazio-garaian _18_____ zen trena, Britainia Handian. Gaur egun ia mundu guztian dago trenez bidaiatzeko aukera, baina alde dago herrialde batetik bestera: “Herrialde guztietan trena ez da berdina, baina egia da gehienetan tren-eskaintza handia dugula. _19_____ , treneko bidaia-mota gure aurrekontuaren araberakoa izango da. Zenbat eta diru gehiago gastatzeko aukera izan, tren-bidaia _20_____ hautatuko dugu. Hala ere, nik trena herrialde guztietan erabiltzea aholkatzen dut”, esan digu Landerrek.

Toki, leku eta herrialde askotan izan da andoaindarra. _21_____ , hilabete bateko opor-egunak, diru nahikoa eta abentura-bidaia egitekotan, nora joan gaitzkeen galdetu diogu. Oso argi du Landerrek: “Ekuadorrera joan zaitezte. Batetik, Hego Ameriketako beste estatuen artean ezezagunena delako. Eta bestetik, harrিতuta utzi ninduen herrialdea delako. Txikia da, bertan bidaiatzeko erosoa, eta, klima eta paisaia oso ezberdinak ditu. Ekuadorrek lau urtaroak urteko egun guztietan ditu: kostan egunero uda da, Andean egunero negua eta Amazonia beste mundu bat da”, azaldu digu.

Eta zu, Ekuadorrera joango al zinateke? Nora izango da zure hurrengo bidaia? Hegazkinez ala trenez bidaiatuko duzu?

(1) ikusten
begiratzen
aztertzen

(2) gogoa
beharra
aukera

(3) emango
pasatuko
egongo

(4) multzo
aukera
plangintza

(5) baizk
ordea
hortaz

(6) dena den
besteak beste
alegia

(7) aipatu
aritu
hitz egin

(8) jakin
jakiteak
jakitea

(9) nahikoa
askorik
adina

(10) partean
partekoa
parte

(11) neronik
neu
neuk

(12) hala ere
beraz
izan ere

(13) uste du
bere ustez
dirudienez

(14) dena den
ordea
bederen



(15) paisaia
paisaiari buruz
paisaiaz

(16) alegia
aldiz
adibidez

(17) kontuan
buruan
gogoan

(18) sortu
egin
abiatu

(19) Hala ere
Beraz
Alabaina

(20) onena
hoberena
hobea

(21) Horregatik
Izan ere
Hala ere

Nork esan du?

Entzun elkarrizketatuei egindako grabazioa eta erantzun beheko galderei.



	Mailen Letamendia	Ainara Beraza	Mikel Arregi
Hegazkina iruditzen zaio erosoena.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Europar mugitzeko trenak erraztasun asko ematen dizkizu.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Lehenengo hegaldi merke bat bilatzen du, eta gero hasten da bidaia antolatzen.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Autobusetan lo hartzen du.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Batez ere, hegazkina erabili du.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Normalean trena erabiltzen du.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Orain dela urte batzuk interrail bat egin zuen.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Trena oso eroso da dela entzun du.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Orain Parisera joango da.	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Eta zuk?

Eta zuk zer erabiltzen duzu? Jarri taldean eta komentatu ondoko puntu hauek:



- Zer erabiltzen duzue normalean bidaiatzeko?
- Nondik hasten zarete bidaia bat prestatzen?
- Nolako bidaiak gustatzen zaizkizue?
- Zer eskatzen diozue bidaia bati?
- Zein da egin duzuen ederrena/aipagarriena?
- Eta gustura egingo zenuketena?

Zuzenketa-orria

Egia ala gezurra?

Bidaia aukeratzeko, nola joango garen erabaki behar da aurretik.

✓ Gezurra

Garraiobideak helburua baldintzatzen du.

✓ Gezurra

Baldintza bat baino gehiago juntatu behar dira bidaia egin ahal izateko.

✓ Egia

Hegazkinaren abantaila da altxatu eta mugitu zaitezkeela bertan.

✓ Gezurra

Hegazkinak bidaiatzen ari zaren sentrazioa handitu egiten dizu.

✓ Gezurra

Treanean herrialde horretako jendearekin kontaktu handiagoa daukazu.

✓ Egia

Balkanetan Bukarestera zihoan tren bat hartu zuten.

✓ Gezurra

Treko taberna itxi egin zuten gauez.

✓ Gezurra

Konturatu ez baziren ere, ez zegoen trenak alde egiteko arriskurik.

✓ Egia

Egokiena aukeratu

Bidaiatzea guztiz osasungarria da buruarentzat. Independentean eta arduratsuan izaten laguntzen du, eta munduari ikuspegi berri batetik (begiratzen). Bidaiek era askotako herrialdeak ezagutzeko (aukera) ematen dute. Horrekin batera, bertako kulturaren, gastronomiaren, kirolen eta ohituren berri ere izan dezakegu. Hainbat ardatz hartzen dira kontuan bidaia baten plangintza egiterakoan: batetik, bidaiarekin zer lortu nahi dugun (esperientzia, bizipena, abentura, atsedena...); bestetik, zein aurrekontu daukagun egun horietarako; eta, azkenik, bertan zenbat denbora (egongo) garen.

Hiru ezaugarri horiek finkatuta, garraiobidea aukeratu dugu. Motoz, autoz, trenez, hegazkinez, autobusez... (aukera) zabala dago. Lagun batek Thailandiara doala esaten badigu, hegazkinez egiteko asmoa duela pentsa dezakegu. Beste lagun batek, (ordea), Europara doala kontatzen badigu, trenean ere joan daitezkeela irudika dezakegu.

Lander Iztueta bidaiari handia da eta Perun, Ekuadorren, Grezian, Turkian eta Tanzanian ibilia da, (besteak beste), eta trena, autobusa, hegazkina eta itsasontzia erabili ditu alde batetik bestera mugitzeko. Andoaindarra munduko bazter askotara iritsi da dagoeneko, baina nola hautatu du zein garraibide erabili? Horrelako kontuen inguruan (aritu) gara berarekin. Landerrek esan digu oso garrantzitsua dela bidaia batetik zer lortu nahi dugun (jakitea). Izan ere, lehen erabakia hori izaten da berarentzat. Aurrekontua eta denbora ere kontuan hartu behar diren beste bi ezaugarri direla aitortu digu: “Askotan, denbora daukagunean, ez daukagu (nahikoa) dirurik edo, dirua dugunean, ez daukagu denborarik. Orduan, gure bidaia arrazoi horiek kontuan hartuta osatu behar da beti”.

Abentura bat bizitzea, erlaxatzea, landa-ingurua ezagutzea, kirola egitea, hirian murgiltzea, kultura zein den jakitea... Horiek eta beste hainbat izan daitezke herrialde batera eramango gaituzten arrazoiak. Landerri herrialde horretako gizartearen (parte) sentitzea gustatzen zaio: “Bidaiatu baino gehiago, atzerrian bizi izan naizela esan daiteke”, aipatu digu. Familiarekin, lagunekin, bikotekidearekin edo bakarrik bidaiatzen du jendeak. Landerrek, bere kasuan, bidaia-motaren arabera aukeratzen du nola eta norekin joan. “Helburua naturan murgiltzea denean, nahiago dut bakarrik bidaiatu, nik (neuk) erabakitzeko zenbat denbora eskaini leku bakoitzari. Helburua hiri bat ezagutzea denean, hobe taldean bidaiatzea; museoetara, tabernetara... joateko”, adierazi digu.

Trenaren eta hegazkinaren alde onak eta txarrak

Landerrek, batez ere, trena eta hegazkina erabili ditu bere bidaietan: “Normalean urrutiko herrialdeak aukeratzen ditut bidaiatzeko; (beraz), hegazkinez joaten naiz eta han, alde batetik bestera ibiltzeko, trena edo autobusa erabiltzen ditut”.

“Denbora eta distantzia mugarri ditugunean, hegazkina denbora-makina bat bezalakoa da, leku batean sartu eta beste batean ateratzen gara”, azaldu digu bidaiari andoaindarrak. Hegazkina erabilgarria dela dio, baina, (bere ustez), ez dugu bidaiatzeko gozatzen eta distantziaren sentsazioa ere ez dugu izaten.

Treanean, (ordea), beste era batean bidaiatzen da. Erosoa da eta bertan alde batetik bestera mugitzeaz gain, (paisaiaz) goza dezakegu: “Gainera, trenean herrialde horretako jendea joaten da eta horrek bertako kulturara gerturatzen ere laguntzen digu”. Hala ere, berarentzat alde ona den hori, beste askorentzat txarra izan daitekeela iruditzen zaio, “bidaiari askoren kasuan, denbora altxor preziatua denez, nahiago dute ahal den azkarren iritsi; eta, horretarako, hegazkinean bidaiatzea azkarragoa da”.

Hurrengo bidaia, (adibidez), Tanzaniara egingo du, eta bertara hegazkinez joango da. Han

lagun batekin elkartu eta herrialdearen mutur batetik bestera mugitzeko asmoa du. Hegazkinean ordubeteko bidaia da, baina beraiek hogeit hamar ordu igaroko dituzte ibilbide hori egiten: “Bidaia horretatik zer atera nahi dugun (kontuan) hartu eta trenean egitea erabaki dugu”.

XIX. mendearen hasieran, industrializazio-garaian (sortu) zen trena, Britainia Handian. Gaur egun ia mundu guztian dago trenez bidaiatzeko aukera, baina aldea dago herrialde batetik bestera: “Herrialde guztietan trena ez da berdina, baina egia da gehienetan tren-eskaintza handia dugula. (Beraz), treneko bidaia-mota gure aurrekontuaren arabera izango da. Zenbat eta diru gehiago gastatzeko aukera izan, tren-bidaia (hobea) hautatuko dugu. Hala ere, nik trena herrialde guztietan erabiltzea aholkatzen dut”, esan digu Landerrek.

Toki, leku eta herrialde askotan izan da andoaindarra. (Horregatik), hilabete bateko opor-egunak, diru nahikoa eta abentura-bidaia egitekotan, nora joan gaitzkeen galdetu diogu. Oso argi du Landerrek: “Ekuadorrera joan zaitezte. Batetik, Hego Ameriketako beste estatuen artean ezezagunena delako. Eta bestetik, harritura utzi ninduen herrialdea delako. Txikia da, bertan bidaiatzeko eroso, eta, klima eta paisaia oso ezberdinak ditu. Ekuadorrek lau urtaroak urteko egun guztietan ditu: kostan egunero uda da, Andean egunero negua eta Amazonia beste mundu bat da”, azaldu digu.

Eta zu, Ekuadorrera joango al zinateke? Nora izango da zure hurrengo bidaia? Hegazkinez ala trenez bidaiatuko duzu?

Nork esan du?

	Maialen	Ainara	Mikel
Hegazkina iruditzen zaio erosoena.	<input checked="" type="radio"/>		
Europar mugitzeko trenak erraztasun asko ematen dizkizu.			<input checked="" type="radio"/>
Lehenengo hegaldi merke bat bilatzen du, eta gero hasten da bidaia antolatzen.	<input checked="" type="radio"/>		
Autobusetan lo hartzen du.		<input checked="" type="radio"/>	
Batez ere, hegazkina erabili du.	<input checked="" type="radio"/>		
Normalean trena erabiltzen du.	<input checked="" type="radio"/>		
Orain dela urte batzuk interrail bat egin zuen.			<input checked="" type="radio"/>
Trena oso eroso dela entzun du.		<input checked="" type="radio"/>	
Orain Parisera joango da.		<input checked="" type="radio"/>	

Transkripzioa

Egia ala gezurra?

Nik bidaia bat antolatzeko garaian kontutan hartzen ditut hiru ardatz. Azkenean garrantzitsuena izango da zuk bidaia batetikan lortu nahi dituzun bizipenak, orduan horren arabera antolatuko duzu bidaia, zenbat eta abentura gehiago nahi dituzun edo eskatzen dizkizun gorputzak. Baina gero egia izango da baita ere mugarri izango direla bai denbora, azkenean gizarte honetan lanean gaudela, bai ikasten, ez daukagu munduko denbora guztia, beraz hori mugarri izango da. Eta bestetik, bidaia jakin baterako duzun aurrekontua. Azkenean, betiko gauza da ez? Askotan denbora daukazunean ez daukazu diru nahikorik edo dirua duzunean ez daukazu, ez daukazu denborarik. Orduan, hiru ardatz horiek kontuan hartuta beti osatu behar da zure bidaia.

Hegazkinak azkenean eskaintzen dizuna da, urrutira joan zaitezkeela denbora laburrean. Orduan urruneko herrialde bat bisitatzeko garraibiderik eraginkorrena da eta baita ere distantzia horrekin denboraren muga ere. Azkenean, bi asteko epea baldin badaukazu, hegazkinez joan beharko duzu. Bestela azkenean joan eta egun bat galdu...

Trenak dituen alde positiboak beste aldetik, izango dira: bai, trena oso eroso da. Azkenean zu trenean igo zaitezke eta mugitu zaitezke trenean batetik bestera, gero baita ere kontatu dizudana, hegazkinarena azkenean zu hegazkinean sartzen zarenean, badirudi denbora makina baten sartzen zarela eta bat-batean beste... munduko beste toki batean esnatzen zara eta badirudi azkenean errealitatearekin duzun konexioa, bidaiatzen ari zaren konexio hori galdu egiten da. Hori trenak berak bestalde eskaintzen ditu. Zu trenean eroso zoaz, baina aldi berean bai pasaiaz gozaten zoaz, bai bidaiatzeko beraz ere. Gero, beste alde positiboa trenak eskaintzen duena da, zu trenean sartzen zarenean, azkenean trena bera ere herrialdeko jendeak erabiltzen duela. Beraz, zuk herrialdeko kultura horrekin kontaktua mantentzen duzu. Hegazkinaren kasuan azkenean, beste modu bat da.

Duela urte batzuk lagun talde bat ari ginen bidaiatzen Balkanetan barna eta hartu genuen... hartu behar genuen tren bat, Errumaniatik, Bukarestetik Istanbulera, Turkiara zihoan tren luze horietako bat, eta trena bera zen 20 ordu inguru, orduan eguerdi batean hartu genuen arratsalde partean eta hurrengo eguneko goiza arte. Beraz, gaua trenean pasa behar genuen. Eta haietako batean, Bulgaria zeharkatzen ari ginenean, trenak bere geldialdiak egiten zituen herri txikietan edo zonako estazioetan. Eta jada gau ilunean ginenean, jabetu ginen ez zeukagun (geneukala) ur nahikorik bidaiarako eta jada egarritik hiltzen ari ginenean horietako batean trena bertan geratu zen, horietako estazio batean. Guk leihotik ikusten genuen han denda txiki bat bazegoela ura zuena. Beraz, imajinatu dezakezue nola zen gure momentuko egarria; baina bueno aldi berean beldurra zeukagun (geneukan) trenetik jaitsi eta trenak ihes egingo ziguna eta han Bulgariako herri txiki horretan galdurik gelditzekoa. Beraz, han ginen leihotik atera ez atera, itxoin ez itxoin, eta haietako batean trenetik jaitsi nintzen arte eta begiratu nuen trena eta jabetu nintzen trenak lokomotorarik ez zuela jada ihes horietako batean alde egin zuela, eta han zeuden andenean bi tren abandonatuta. Orduan ia gure lasaitasunarekin ura erosi genuen eta handik ordu batera edo lokomotora etorri zen berriz ere eta han hartu eta martxa egin genuen berriz ere Istanbul aldera.

Nork esan du?

1. IRITZIA: MAIALEN LETAMENDI

ESATARIA: Zein garraiobide erabiltzen duzu bidaiatzeko?

MAIALEN LETAMENDI: Bueno, nire kasuan bidaiatzeko gehienbat erabili izan dudana garraioa hegazkina izan da. Azkeneko bidaia adibidez, Indiara izan zen eta hor hegazkina erabili behar nuen.

ESATARIA: Nola hasten zara bidaia bat antolatzen? Garraioak zer nolako garrantzia du antolaketa horretan?

MAIALEN LETAMENDI: Saiatzen naiz hegazkin edo buelo merkeenak aurkitzen lehenengo eta horren arabera ba pixkanaka ba, bidaia antolatzen.

ESATARIA: Bidaia motz edo txikietarako zein garraiobide nahiago duzu? Eta luzeetarako, zer nahiago duzu trena ala hegazkina?

MAIALEN LETAMENDI: Bidaia motzetarako edo txikietarako, adibidez lanera joateko, trena. Trena erabiltzen dut normalean eta luzetarako dudarik gabe hegazkina.

ESATARIA: Eta zergatik?

MAIALEN LETAMENDI: Eta zergatik? Bueno, ordu asko direlako azkenean bidaia luze bat baldin bada, hamalau ordukoa edo gehiago, nahiago dut hegazkina komodidadearengatik.

2. IRITZIA: AINARA BERAZA

ESATARIA: Zein garraiobide erabiltzen duzu bidaiatzeko?

AINARA BERAZA: Ba segun nora "nijoan" (noan), ba bat edo bestea. Orain adibidez Parisera "nijoan" (noa) eta Parisera hegazkinean "nijoan" (noa).

ESATARIA: Nola hasten zara bidaia bat antolatzen? Garraioak zer nolako garrantzia du antolaketa horretan?

AINARA BERAZA: Normalean aurrena erabakitzen dudana da nora noan eta gero, nora noanaren arabera, begiratzen dut trena, autobusa eta hegazkina eta merkeena hartzen dut.

ESATARIA: Bidaia motz edo txikietarako zein garraiobide nahiago duzu? Eta luzeetarako, zer nahiago duzu trena ala hegazkina?

AINARA BERAZA: Normalean motzak beti autobusez egin ditut eta ondo, ze nik lo hartzen dut eta ez daukat batera problemarik. Eta luzeetarako, egia esan oraingoz behintzat beti hegazkinez ibili naiz, baina esan didate trena oso komodoa dela.

3. IRITZIA: MIKEL ARREGI

ESATARIA: Zein garraiobide erabiltzen duzu bidaiatzeko?

MIKEL ARREGI: Garraiobide bat edo bestea erabili, azken finean, kondizionatuta dago segun eta zein bidaia mota egin behar duzun. Zuk kontinentez aldatzera bazoaz, azken finean hegazkina hartzea besterik ez zaizu geratzen. Eta berriz, Espainian edo Europan geratzen baldin bazara, trenarekin mugitu zaitezke. Adibidez, nik duela urte batzuk "interrail" bat egin nuen Europatik eta trenean mugitu nintzen. Azkenean, trenean mugitzea ba hiri batetik bestera joateko eta horrela, erraztasun asko ematen dizkizu.

ESATARIA: Nola hasten zara bidaia bat antolatzen? Garraioak zer nolako garrantzia du antolaketa horretan?

MIKEL ARREGI: Garraioak duen garrantzia handia da, segun eta lehen esan dudana, bidaia nora egingo duzun, horrek azkenean baldintzatzen zaitu garraiobide bat edo bestea hartzera.

ESATARIA: Bidaia motz edo txikietarako zein garraiobide nahiago duzu? Eta luzeetarako, zer nahiago duzu trena ala hegazkina?

MIKEL ARREGI: Azken finean hor ere bai lehenago esan dudana bezala, kondizionatzen du nora joango zaren. Zu joan zaitezke asteburu bat Londresera adibidez eta hegazkina hartzea beste erremediorik ez zaizu geratzen, baina joaten baldin bazara azkenean hogeit egunetarako Europatikan zehar, joan zaitezke trenean berdin-berdin. Eta berriz, kontinentez aldatzen baldin baduzu, hegazkina hartzea bano beste erremediorik ez zaizu geratzen. Zu joan zaitezke Ameriketara adibidez, astebeterako edo hilabete baterako eta berdin-berdin hegazkina erabiliko duzu eta trenarekin, berriz, berdina.